

VICI BEDI JESUS

Escu-Librua, ta
berean


EGUNEANGO
CRISTIÑAÙ-
CEREGUIÑÁC

A. Fr. PEDRO ANTONIO AÑIBARROC,
Zarauzco Colegio A. San Franciscoren Ordeaco
Misionariak Bizcaico eusqueran **ifinidituz**.

BEAR DAN LEGUEZ

TOLOSAN: Liburuguille Don Francisco la Lamaren
echean.

1802. Urtean



1999. urtea (uztaila)
Lege-Gordailua: SS-771/99

SARTAURREA.

IRACURLE màitea: ondo daquizu, ta ezta eztaquienic libru santuen iracurtzetic sortu, erne, ta datoza zoriònac, irabaciac, ta frutu ugariz betè, osò, ta eldùac Arimai. Eztabe neurriric, ecin mugatu, ta cembatu leiz, libru ònac zucendu, ondu, ta Ceruco vide artecera ecarri dituezan becatariac, ateraric deabruaren azpitic, ta bere aguintaritza gogor gogaicarritic. Esan lei, euroc diriala, sua victuten daben egurra leguez: arerio perseguillac astindu ta goiberatuten dirian escu-armac leguez. Orain bada: celan victu lei su santua libru on viztugarriac baga? Celan alde eguin ilunetaco or emen jaustea argui baga? Celan goiartu arerioac, izanic asco ta asmutsuac?

Orra bada, non icusiric, alde batic Bizcayco Erritar maitén gai ona, ta Misiño demboran asco asten diriala iracurten icasten; erruquituric bestetic, ez idoroteaz dotrinazco chiquiac baño beste liburik Bizcayco eusqueran; ta gogoraturic bestetic, Arima, asco libru santùen bitartez ta videz elduco litzatequezanac Jangoicozcoak izatera, euren jaquineza itsuaz datocela deabru madaricatuen adu gaistoco servitzariac izatera; beragatic asmatu dot, asti ta eraldi utsac erle zur aituaren antzera emotea: onec bilduten dituzan leguez loraric onenac, eztiabia gozoa eguiteco; alan eguin dot aleguiña, librucho baten batu, lotu, ta alcartuteco, libru ascotan zabalduric dabiltzen adivide santuac Arimen oneraco.

Eta alan, era batera ifinten deusudaz emen eguneango Cristiñau-cereguiñac; goxetic arratsera eguin

bear dozuzan gauzac; egun bacoheraco Meditaciño edo
gogarte santuac; Mezenzuteco, Confesetaco,
Comulguetaco, Calvario santuraco, Errosario ta beste
devociñoetaraco oraciño ta escariac.

Zure oneraco beste baga, ta beste erderaric
eztaquienezat ardu dot, ta ondo gogo onaz, lan-neque
labur au. Baldin mesederen bat onetan eguiten badeutsut,
ezteutsut beste bear-sariric escatuten, ezpada izan
zaitezala esquer onecoa, aztuten ez nozula ceure oraciño
ta escarietan. Eta urren artean, Agur.

VICI

VICI BEDI
JESUS.

EGUNEANGO CRISTIÑAU
CEREGUIÑAC.

GOXEAN.

Irazarri ta bertatic, beste gauzara gogoan emon baga, jaso biotza Jangoicoa gana, eta esan: Jesus Maria, ta Josepe, lagundu eguidazue egun onetan. Aingueru gordetzallea zaindu ta gorde naguizu gaur.

Jagui albait lenen; ur bedeinquetua artu; ciñatu; belaunicotu; esan: Neure Jesu-Cristo Jauna, ta urrengo oraciñoa:

ORACIÑO.A.

Irtasun Santua, Aitea, Semea ta Espiritu Santua; Jangoico bacarra; gauza guztien Eguille, Jau, eta Jabea: Cerutar guztiac bedeinca-zaizeela, ceuré izaté miragarrià gàiti: ni ecerecetic sortu; Cristiñau-errietan acì; ceuré Semearen odolàz erosi; orainguiñò ichadòn, maitetù, età laztàn izàn nozúlako; eta ceurè Ontasùn oxin bágueac niri, ta guizacùme dirianai eguiñico mesede neurri bágueac càitic.

Biotz guctiric esquer ònac emòten deutsùdaz, barcò arràtse ilunstaric egunsenticò arguirà atarà nozulacò. Ceurè ontasunàc, ta ez bestéc gordè ta jagòn nau gauguinò. Ceimbàt, Jaunà zor deutsut onembestè mesedé gàitic?

Ni bart il nèindequean: bèrein il izangò dira; gaùr àsco ilgò dira; età bearbadà ni lenèn. Ah! eztàquit eldùco banas arratserà: agàitic badà ondò emòn guradot egun au. Bai: ce, egunic àsco jataz utsic, ta alperric.

Onetaraco, Jaunà, opa deutsudaz orainganic gaurcò gògo bèrba, nàiera, bèar nèque, ta eguìquera guctiac, età eurècaz batera esquiñiten deutsùdaz, negarrecò errì onetàn erbestetùric nágoan artecò eguite on guziac; Elexa Santàn eguingò direànacaz, età Jesu-Cristoren merecimendùca caz baterà.

Ifinten dot gogoà irabazteco gaurcò Indulgènciac edo Parcamenac neuré becatu, età Purgatoriocò Arima santèn quitugarrizat.

Esquètan dèutsut, Jaun erruquiorrà, arrèn, zucen daizùzala gaùr, da beti, nir gogo, asmo, ta lan guziac, alderatù. ofendidù ciñaidezan, oquer bidetatic; eta parcatu, jáusten banas argaltasùnez, jaquinezaz, edo neure gurari, oitura char, ta ecandu gaistòden indarraz.

Larberé sarrì-ascotàn jausi nas; damu dot biotz guctiric; parquèsca nagotzu; età emòten deutsut beticò verbà sendò benetacoà, ez gaùr, ez iños Zu iraindùteco;

etá vicierà barri bat artzecò. Alan guertade dilla. Amen.
Esazu Credo.

AMA VIRGIÑARI

Oraciñoa.

Cerù ta lurrecò Erreguiña, Jangoicoaren Ama maiteà, età becatarien bitartecorik laztanena; ceurè bearrà dot egun onetan; estalpetù naguizu ceurè egapean; arteztu eguizuz nire eguiquerac; zucendu nire ibillerac; gordè ondamendi, ta galbidetari; erregutù becatari andi onegàiti ceurè biotzecò Semari; escaturic, arren euqui daiela nire erruquia; eta ondò artuac izan ditecela berè aurrean nire gaurco lan, esa-eguite, neque, ta bearguztiac, neure becatuen orderacò, bere glori andienoracò, eta neure lagun-urcoen oneraco. Amen. *Ave Maria, ta Salvea.*

AINGUERU GORDETZALLEARI

Oraciñoa.

Neurè arimecò Zain, ta Gordetzallea: Jaingoicoaren Anguerú ederrà, neurè lagun, ta jaolà maiteà negarrezco erbeste onetan. Sortu nintzanic onà zabiltz nire laguntzan: berein esquer, ta mesede zor deutsudaz.

Jarraitu eguizuz, gaur bere, nigazco ardua aleguiñezcoac: urrindu èizuz niganic arerio gaistoac; goiartu deabru madaricatuac; banatu bere sareac; laquioac, amu, ta asmùac.

Irazartu, ta biztu naguizu: banacutsu nagui epelic: adierazo, ta ulertu eidazu cer eguin, ta cer ichi bear dodan Jangoicoaren borondatea betétaco: gaurco egun au ondò emoteco: eta eriotza guiño gracion, ta baquean irauteco. Amen. *Aita gurea, ta Ave Maria.*

NEURE ICENECO SANTUARI.

Oraciñoa.


NNeure iceneco N. Santu andia! ceure icen miragarria ifini eustèn bateoan; Zu nire moldea izanic, jarraitu neguiantzat ceure vicitza, virtute, eguite eta santutasuna.

Izan zaite, bada, gaur, da beti, bitarteco neureà Jangoicoaren aurrean: jagon, ta gorde naguizu estuera, ta oquer-bide guztietan; bada ni orainganic asico nas viciten ceure antzera lurrean; izan artean ceure lagun Ceruan. Amen. *Aita gurea, ta Ave Maria bat.*

EGUN ATACO SANTUARI.

Oraciñoa.

Egun onetaco Santu biotzeco! Ceruan, ta lurrean gordeten da gaur ceure egun andia. Gaur Elexa Santuac ifinten deustaz beguien aurrean ceure humiltasun, necalde, ta penitencia arrigarriac, biztutéco nire epeltasuna; eta ceure antzera viciten prestà nadin; jarraituric orain ceure oñetzac, eguin daizudan lagun betiraun guzticò gloriàn. Amen. *Aita gurea, ta Ave Maria.*



Lan laburroc eguiñic, zoàz Mezenzutera. Beinberè ez uts eguin Mezà Santa adoragarria età al baitanez enzun barautan; badà len da arimèa, gorputz ustelà baxèn: len dà Echandreà otsein, serbizarià bañò: ezdau cer icusi gorputzac, arime illeciñ miragarrien alboan.

Mezatarà echeric urteten dozunean, uste izan, Calvariorà zoazela, icusten ilten Jesu-Cristo. Jaquin beozu, diñò San Agustinec, Angueru Gordetzalleac neurtuten dituela Mezenzuteco emòten dozuzan oñètzac.

Sartzaite Elexan, bildur-icara lotsazcoaz: iruditu, Ceruan bertan zagozala. Ez albora adi egòn, ce, aldi baten, deabruac betondocò esquerga bat emoeutsan, alborà beguirà egoan batì.

Gomutà-záite, Jangoicoaren aurean zagozala; età gogora ecartzu, edonosberè Elex onetarà ecarrico zaituela illic.

Echean, edo Mezea ichadoten zagozan bitartean, euqui gogartè, edò adimentuzcò Oraciñò guichi bat. Ondoèn euqui daizun, orrà emèn egun bacoheracò gogarte, edo Meditaciño labur bàtzuc, A. *Juan Pedro Pinamontec* Misiñoetan emoten cituenac.

VICI BEDI JESUS.

GOGARTE LABURRAC ATZERENGOEN GANEAN.

ILLECO EGUN BACOITZERACO, ALDATUAC A.
JUAN PEDRO PINAMONTE NETATIC.

SARTAURREA, TA ADIBIDEAC ORACIÑO
EUQUITECO.

LENENGO

Gogorà ecartzu, cer zarean zu, ta cér jangoicoà: zurè ecereztasun billau-prestuezà; eta Jangoicoarèn Izatè miragarria. Egon bere aurrean fede vici, biotz-erexeguin, humiltasun, ta bildur santu bateaz, errudun bat leguez. Escaeiozu, arguitu daiela zurè adimentua; berotu borondateà, ta zolitu zurè borondateà, ta zolitu zurè gomutea, ta aracatuteco, iracurten zoazan *Gogartea*. Eta oni dericho *Prestaereà*.

BIGARREN.

Billatù adimentù, ta cenzunaz, età astirò gogatú, iracurten dozuzan berba guztiacbanàn, ta bacocho berez.

Beguiratu, gogarte onec adierazoten deutsuen antzera vici bazarà: beguira zaitez, celàn vici zarean: aracatu, cetan utseguiten dòzun: cec jausi, ta irau-erazoten-zaituan aracò ecanduzco becatuan; aric età idorò, ta goiartu artean vicio aguintaria; ta ebagui artean bere sustrai gaisto oquer, gach guztien ecarleà. Età oni dericho *Gogarte*, edo *Meditaciñoa*.

IRUGARREN.

Biotz, ta borondatè osoaz gorrotatu orainguiñocò vicitza deunguea: damutu, becatu eguiñena: josi ceure, ariman gogò sendò bat, onduteco aurrerantzean ceurè vicitzea, *Gogarte* iracurriac dirautsunen erara.

Gueroenean, erregutu Jangoicoari, bere Seme Jesu-Cristori, Ama Virgiñari, Angueru gordetzalle, ta ceure Santu bitartecòari, lagun daizuela, frutu ugariac Oraciñoric ateretaco; ez osterà becaturà biurtzeco; ecandu charrac ebaguiteco; lagun deunguetaric urrinduteco; negarrez becatuac urtuteco; eta viciera onbateaz eriotza guiñò irauteco. Età oneri dericho *Coloquio*, edo biotzezco *verbaldià*.

IRACURTEN DABENARI.

Gogarte, edo Meditaciño onec dòaz guizonen azquenenengoen ganeàn; bada éureen gomuté bazarà, etzarà iños jausico becatuan; diño Espiritu Santu Jaunac: Eccli. cap. 7. Jesu Cristorèn erraiacaitic erregututen deutsut; guichienez ordu lauren bat emon daizula

egunean lan santu onetan; ce, bearbada, beraganic dago esqueguiric dindilica zure betico zorion, edò zorigaisto guztia.

Gogarte oneetatic batec, edo besteac eguiten badeutsu indar gueiagò; gueratu bertan; equin, ta esetsi berari, eta eragò urrengò egunean. Alan iracasten dau San Ignacio Iracaslè andiac.

Adimentuzco laneetan demporà guztia emon бага, igaro borondatezcoetara: gorrotau becatua; emon Jaunari esquer onac, bere Ontasunac eguinico mesedea-caitic; eci aragui gaistoa; ucatu zeure buruaren onerechi, ta arrotasunà; aztu lurreco ondasun uts-guzurrezcoac, euqui erru guztien damù, ta garbaia; eta aurrerantzean obetuteco gogo irme-sendoà.

Erregutu, ta sarritu escariac Jangoicoari, Jesus biotzecoari, bere Ama maite, Anguerù zain, ta ceurè bitarteco Santu-Santai, argitù zaizentzat aterateco ònen bat lan onetatic.

Gogarte ostecò frutua, ezta **bat** egun guztietan; baña asmetan bozu, onec, edò besteac muguetan-zaituala obeto, ebaguiten bicio char bat, edò irabazten virtuteren bat; zaquioz orri bier, etzi, ta ille guztian, uste bozu, izangò dala Jangoicoaren glori andieneracò, ta ceuré arimaren oneracò.

Egunen baten lecuric ezpòzu lucetuteco Oraciñoa; iracurri batezberè iru, edo lau bider egun ataco *Gogartea*. Età astirò zagozala, badabil or emen gogo, ez ichi escu

arteric libpruchu au, eta beti-berè barriztatu iracurtzà;
onelan lotucozuz gogoraciño citelac.

Espiritù Santu Jaunac arguitu, ta lagundu daizula;
eta escatu eguiozu berari **biocaiac**.

GOGARTE LABURRAC ATZERENGOEN GANEAN. ILLECO EGUN BACOCHERACO.

~~~~~  
~~~~~

LELENGO EGUNA.

Ce ardurazco lanà dan Salvaciñoa.

I **N**irè eguitecoric bearrena dà neure Salvaciñoa:
baldin nic berè arduraric ezpadaucat, noc euquico dau
nigatic?

II Ain da neurea lan, da cereguiñau, ece, berean joat
nasan guztiau, nire arimeà, ta nire gorputza: nic
jaramoten ezpadot, noc aitùco dau nigaitic?

III Da cereguin bat, ceinetaric jatort betiraun guzticò
zorion guztia: nic galtzen badot, noc irabaci leit?

Bada cer eguiten dot? Norà adi nago? Celan
guztiau emoten eznas neure arimeà salvètara? Ez dot
neure arimè bacar au baxen gauzà maitegarriagoric:
eztauquet arime illeciñau baño balio andiagoco
ondasunic: bein galtzen badot, guztia betico galdu dot.

FRUTUA.

Virgiña Ama Maria, Angueru Gordetzallea, ta egun ataco Santuaren escuz, da bitartez opa, ta esquiñi Trinitade chitò Santuari ceure biotz, asmo, gogo, ta eguiquera guztiac, zucendu ditecen Jangoicoaren glori andieneraco, ta ceure arimaren oneraco. *Esazu irubider Gloria Aiteari.*

BIGARREN EGUNA.

Eriotzaren jaquiñezà. Emonic dago sententia: Ilgo nas.

- I. **B**aña, eztaquit nos: ill-neindeque orainché ordù onetan.

- II. Bañà, eztaquit non: ill-neindeque aracò gach-bide, ta eraldi deunguean.

- II. Baña, eztaquit celac: ill-neinteque aracò becatuan. Eta ain pocic irunsiten dodaz becatuac? Eta onen erraz biurtzen nas lengò becatuac? Eta eztot gorrotau, ta igues eguiten becatuac, ¿Ce sinismen, eta cenzun da nirea? ¡O ce gor-sortuac nagoan!

FRUTUA.

Erabagui orain ganic, celan emongoduzun demporeà; eta eguingozuna ordu bacochean. Bearbada, galtzen dozun ordu ori, izan leiteque azquenengò orduà: eta ameneco, ordu onec ondò emonic segurutu leizu Cerua.

IRUGARREN EGUNA.

Eriotzaren barri bildurgarria.

Uste bàga beingo baten ilten ezpanas, elduco da eguna, ceinetan esangò jatan, abiatu, ta presta nadilla ondò ilteco.

Orduan: I. Euquico dot burua contesetaco, aricaturic gacha gaz ozta egongo banas berba eguiteco?

II. Larri-izuturic, bildur-icaraturic, conorte бага, ta zorabiaturic egongo nas; eta euquicodot gogoà becatuac gomutetaco?

Nire conciencia egongo da matazà nastau moropildu bat leguez, eta euquicot biotzic negar eguiteco neurè becatu icaragarriac? O neurè Jangoicoa! eta cer eguingot orduàn?

FRUTUA.

Barriztau viciguzticò Confesiñóac; eta lenagò eguin ezpozu, eguizu orain guztien confesiño eguiazco bat; eta len eguinic bòzu, guerorengoa eguin cenduanic onacoac:

erabagui ceure arimecò gau: eta Confesiño on on bateaz
ixildù ceurè biotzeco deadar, ta uisquetada bildurgarriac.
Artu, ta autu Confesorè on bat: eta ez galdù, Jaunac opa
deutsun demporau, obetuteco ceurè vicitzà gaistoa.

LAU-GARREN EGUNA.

Eriotzaraco prestaerá.

Cer litzateque on, nic eguita, eriotza on bat euquiteco?

I. Ordu atán gura neuqueana, eguin izan baneu.

II. Ordu atan eguin ecingó dodana.

III. Ordu atan gura, ta gurez eguin bearco dodana,
salvaucó banas: neuré becatuen damuaria oso bat: viotz
min, dá garbai vici bat: aurrerantzean becatúra biurtu
eceiteco gogo sendo bat.

FRUTUA.

Ardurá andi bate-gaz arteztu gaurco esa-eguite guztiac,
atceneco eguna balitzan leguez; negarrez urtu neure
becatu, eta gaistaqueri ezainac; eta barriztau,
aurrerantzean onduteco, asmo eguiazco bat. *San
Joseperén honran zazpi bider Gloria Aiteari.*

BOST-GARREN EGUNA.

Ilteco dagoanen estuereà.

I. **I**garoác larritúten dau: aimbeste becatu negar eguin bagúeac.

II. Aurrecoac bildurtúten dau: dacus condenetaco ondamerendia; etá eztaqui celan urtengo daben galbide onetatic.

III. Gueroacoac arritúten dau: aurrez aur ifinten jaco betirauna, edo eternidadea; etá eztaqui guertatuco jaconez Cerua, alá Infernua. Santuric andiena icaratuco dá; badá cer eguingót becatari andi onec?

FRUTUA.

Bereala confesa-zaite gaur, asmetan badozu ceure ariman becatu ilcor eriotzco, edo mortalen bat: eta bazagoz Jangoicoaren gracion, berari esquer ónac emon mesede andi onegatic.

Escatu Jaunari, eta Ama Virgñari arren alan iraunerazo daizula eriotzara guiño. *Esazu gaur Ama Virgñaren Letania.*

SEI-GARREN EGUNA.

Atzerengo arnaseà.

I. **A**tzerengo orduan urtengo dau arimeac gorputzetic, etá ichico dituz gorputzeco olgurac, ta atseguñac.

II. Ordu atan galdu cirian andi-gurac; joan cirian ondasunac; ta urrindu cirian adisquideric laztanéac.

III. Ondatu neindeque betico ordu atan. Orain vici nasan au balitz atzenengoa, cer izango litzateque nigaz? O memento icaragarria, ceinetaric dago esqueguiric dindilaca betiraun guztia!

FRUTUA

Orduric ordu eguin concienciaco billacuntzea, ta icusi celan, ta cetan emon dozùn aurrengo ordua. Alan eguiteban S. Ignacioc. Eta ecandatu ta oitu zaite, enzuten dozunean erlojuà, esatera: Ave Maria: irabazteco Indulgenciac.

ZAZPI-GARREN EGUNA.

Doa arimea judiciorá

Ill ta bereala guertaco dá arimea Jangoicoaren Adizain, ta Judicioan.

Iruditu, ta uste izan, oearen oñétan dacusdala: I. Jesu-Cristo Juez aserratu gogor bat leguez nire contra; eta etorri dala niri betico sententia emotera.

II. Ezquerretara, Deabrú madaricatu enteró pocic; ta ifinten deustazala beguien aurrean libru-zar andi

bat, iracurri daidezan berean banán banán, da bacocho
berez neure vici guztico gaistaqueria, ta erruac.

III. Ezcoatara, Angueru Zain-gordetzallea
iracurten libru **pildin** baten nire eguiguera on guichiác:
eta chito tristeric ifinten deustalá beguien aurrean. O ce
adigarri tristea! O ce icusgarria! O ce larritasuna!

FRUTUA.

Gaur gabeán oean zatzala, zagoz echunic ill-aguinian
dagoanen antzera, eta iruditu, escu batean dozula Christo
crutzean josiric, eta bestean candela erexeguin bat. Biztu
onetan ceure gogoá; etá esan ceure arteán: Auxe baliz
neure atzerengo ordua, cer gura neunque euqui eguinic?

ZORTZIGARREN EGUNA.

Arimearen Juicio bacarrá.

I. **C**ontu gogor estu ciurrá artuco deusté neure
gogo, verba, ta eguite guztiena. An aguertuco dira ni
esetsi, ta salatuten, tentatu ninduen deabruac; galdu
nituzan lagunac, eta aimbat quisquetada, ate-joca, ta dei
emoeustazan conciencia enea.

II. **J**ueza izango dá enteró ciur. arteza, ta erruqui
bagea. Bere aurrean eguin nituan gaistaqueri guztíac:
berác icusi, enzun, eta aditu cituzan dirianac.

III. Bein emonico sententia ezta inos aldatuco. Ezta izango erruquiric, bitartecoric, ez balioco daben empeñuric. O, betiraun guztico vicitzea! O, betiroco eriotza garratz miña!

FRUTUA.

Ez aztu egun guztian Jesu-Christo Juez aserratuaren gomutea: ta gauzaren bat eguin, eta esan baño len, esazu ceure artean ¿Ce sententia zorco jaco, orain eguiten noian gauza oni? Oera joan baño len, esan iru bider: *Ama graziazcoa, Ama erruquizcoa gorde gaizuz arerioetaric, eta artu gaizuz eriotzaco orduan. Amen. Mun lurrá.*

BEDERATCI-GARREN EGUNA

Arimea eriotza osteàn.

I. Emonic bada sententia Ceruraco, Angueruen laguntzan igoco dau Arimeac Cerura, gloriaz janciric, virtutez aberasturic, da apainduraz ederturic. Noc asmau lei orduco poza? O ce gozotasuna!

II. Infernuraco izanic sententia, billostuco dabe arimeá virtute, doé, ta edergarri guztietaric: jasoco dabé deabruac, eta botaco dabé beingo baten Infernuco su, ta garrera. O adu gaiztoco becatuac! O ce larritasuna, icusten danean suzco toqui exetu gartsu barri onetan!

III. Adu, ta sententia bi onetaric bat, emongo jaco bacochari. Cein bietaric guertaco jat niri?

FRUTUA.

Arratsalde onetan, eguin ezquero examinea, edo concienciako billacuntza, gomutatu, cetan emon dozun vizitzea, eta beguira, ce sententia mereci izan dozun orainguiño; eta cein merecico cenduquean, emongo balichazu, oera echun baño len. *Aita gurea bein, ta iru Gloria Aiteari, Trinidad santeari, becoquiaz lurrean echunic.*

AMAR-GARREN EGUNA.

Gorputz illaren ganean.

Uste izan, dacutsula zure gorputza ill-oean. I. Celan dago? Guztiz icaragarria, belleguituric, ezainduric, eta zul bat leguez datz. Eztacus, éztabil, eztau chitic eguiten. Bacarric, ñoc jaramon, da icusi gura ecinic.

II. Cegaz meztitu ta jazten dabe? Ill-janci zatar eten bateaz, edo habitu zar bateaz: ain dago icaragarria, ce, guztiac doaz igues; inor egon ecinda bere alboan: ozta idoroten dá noc lurpetu daien.

III. Norá dároe? Elexará, Sacerdotén laguntzan, ceintzúec esanic erregute guichi batzuc, sartuten dabe sepulturan; sacatu, ta osticopetuten dabe ardurá bága, bertan lurtu, autstu, usteldu, ta arrac jan daien: eta ichiric an bacarric, doa bacochá bere echerà. Eta gorputz au,

nabil ni, edertu ecinic, olgura, guztu citel, ta naigurac emon ecinic? O ichutasuná! O eraqueria!

FRUTUA.

Zóaz gaur Elexa batera; eta adoraturic Jesus Sacramentadua, gueratu-zaite Sepultura baten ganeán: ta esazu bost bider: Egunen baten eche onetará ecarrico dabé gorputz nire au, bertan usteldu, eta arrac jan dayen. *Errezau cer bait Purgatorioco Arimacaitic.*

AMACAGARREN EGUNA.

Vizitzaco Procesoa.

Vici nasan arteán eguiten dodan guztia, doa bacocho berez escribiduric Proceso baten; ta elduco da eguna, ceinetan iracorrigo jatan.

Iracurrigo jat, eguin bear eneban oquerqueria, ta alamberé, eguin neban.

II. Iracurrigo jat, eguin al neuquean on guztia, eta eguin ez nebána.

III. Guzti onen ganera jausico da azqueneco sententia. Baña, ce sententia? ¡A neuc orain neure eguita caz irabazten dodana!

FRUTUA.

Biurtu beguiac lenagoco vizitzara; eta aracatu, lotsaz, vaneriaz, eta guizonai ondo erechitarren, eguin baga, ichi dozuzan gauza onac: galdu dozun demporea; eta eguin dozuzan becatu neurri bagueac. Negar eguizu bata, ta bestea; eta asi zaite benetan vizitza on bat eguitera. *Aita gurea bein...*

AMABI-GARREN EGUNA.

Penitenciaraco acullo, ta cíac.

Becatu eguin badot, bearturic, ta premiñaturic nago, penitencia eguitera. Ezta alan? Baña nos eguingot?

I. Eriotza ostean ecinei, cerren joantzan eguiteco temporea.

II. Eriotzan ezta erraz, badá asti guichi dago orduan, eta gogo guichiago.

III. Orainche baxen beste era, aldi, ta démporaric eztago neure nai-guran: bada alan, edo eguin orain penitencia; edo bildur izan orainganíc eguño beré ecingo dodala.

FRUTUA.

Emon guztiai on-bide, ta conseju ònàc: eta eguin al daizun guztìa, irabazteco becatariac ceure berba, erregu, adibide, ta esa-eguite ònacaz. *Errezatu bost amarreco*

Errosario bat; età viotz guztiaz escatu Virgiñeari, iñor galdu eztidilla zurè erruz, ta galbidez.

AMAIRU-GARREN EGUNÁ

Judicio aurreco icusgarriac.

Fedeac iracasten deuzcu, ta Jesu-Cristoc adierazo euzcuzan Judizio aurrean jasoco direan icusgarri icaragarriac.

I. Izango dira asco, ta andiac: Eguzquia odoitu, ta ilunduco da: Illarguia odolez jancico da; Izarrac jausico dira lurrera: Ichasoa, ganez eguinic, amurratuco da: Lurrac idiguico dituz ao zabalac: Icusiko dira lur-icàrac, guerrac, alcar icusi ecinac, gorrotoac.

II. Izangò dira nos guichien uste dogun: nos mundutarrac guichien ichadongò dabèn: nos munduan becatu gueiago eguingo dan; eta nos munduac, onduteco, demporaric euquico eztabenean.

III. Izangò dira icaragarriac: jaitsico da Cerutik suzco ybai bat, ceinèc errèco dituz guizonac, abereac, landarac; eta autstu, ta apurtuco dituz Uriac, Jaureguiac, echéac, ta ondasunac: Berba baten: mundu, ta mundutar guztiac, bachò bere ichi bàga. O ce su, ta gar cudrelà! Errazoiric eztauden Criaturac larri estuturic egongo badirà, cer eguingo dabè orduan becatariac?

FRUTUA.

Iru gauza eguingozuz gaur: lenengo, artu bildur andia Jangoicoaren justicia, ta aserrearri: bigarrena, ceurè becatuen viotz-min, ta damù vici bat: irugarren, ichadon Jangoicoaren Ontasun neurri bagueàn. *Iru bider Aita gure, ta Ave Maria.*

HAMALAU-GARREN EGUNÁ.

Gorputzen Viztuerà barrià.

Aingueruac jo ezquero araco trompetà bildurgarria:

I. Biztu ta jaguico da nire gorputzau datzan toquitic.

II. Nirè gorputz onegaz barrirò batuteco, etorrìco da nirè arimea, edò Cerutic, edo Infernutic.

III. Gorputz, da arimeà alcar baturic, biac iraungo dabé betico, iños il bàga. Baña celan? edo beticò zorionecoac, edo betiraun guztico adu gaistocoac. Adu gaistocoac orduan vizitzaco olgura, atseguñ, ta gustu citelac!

Zori onecoac egun atan, oraingo barau, neque, ta penitenciac!

FRUTUA.

Artu gaur necaldirèn bat, celàn dan, baraiä, cilicioà, edo beste laztasun bat. Ichi gozaldiren bat; laburtu jatecoa; berbac urri; beguiac lurrera adi: igues eguin pozcarietaric: eci gorput-gaiztoa; età ebagui burua bicio aguintari, calte gogor guztien sustraiari.

Iru Crutze miña gaz lurrean berba deunga caitic.

AMABOSTGARREN EGUNÀ

Juezaren etorrerea.

Jesu-Cristo vici, ta illen Jueza jaitsico da bere Ama, Angueru, Apostolu, ta Cerutar guztien laguntzan odoizco Jarlecu eder baten.

I. Neure Eguillea leguez, contu estua artucò deust, niri eguñico esquer, ta mesede guztiena; età ni salvétaco, eguincituan aleguin ardurazcoena; eta nic, esquer bague onec, guztiaç aztu, ta galdu nituzan.

II. Neurè Gurasó leguez, contu escatucò deust, niri eustan maitetasun, ta asco-gurearena: nigan eracutsi eban Ontasun neurri baguearena; eta nic orren deunguerò eranzun neutsan.

III. Neurè Erosle, ta Erredentore danez, contu gogorra artuco deust nigatic emoeban odol ugari baliotsuena; eta nic abereac baño abereago, ain sarritan zapaldu, ta oñazpitu neban.

FRUTUA.

Eroan gaur Crutze astun bat lepoan; edo egon luzerò besoac zabalic; edo erabilli garriàn ulle latzezco soca moropildu bat; edò beste laztasunen bat Jesusen Pàsiñoaren gomutèan.

Artu betibere besartean Jesus Crutzean-josia; escatu Aità maite eguiazcoari leguez, erruquia equi daiela zugaz; età mun-eguin bere llaga, ta zaoriac, esanaz bacochari. *Gloria Aiteari bat.*

HAMASEI-GARREN EGUNÁ.

Conciencien aguertea.

I. **B**ecaturic arin, ta chiquerrena gueratuco ezta ezcutuan, ez azturic. Direànac iracurricò dira guztiac guztià enzungo dabe. Ce lotsari aguirian icusico eznas orduan?

II. Ceimbat gaistaqueria lecu ixilean, ta ezcutuan jasoac urtengo dabè orduan? Ceimbat oquerqueria, neure erruz aztuac, ta jaramonezac, aguertuco dira an? Ce achaqia, ta eranzuera emonei orduan?

III. Eguin dodazan becatu guztien aurrez àur ifinico dituz Jangoicoac, beràc eguinico esquer mesede, ta gracia asco, ta andiac, età lotsatuco nau, zapàldu neban bere Odolagaz; deunguerò artu nituan Sacramentuacaz;

enzun, da eranzun enituan viotz-dèi, ta quisquetada-caz.
Ce lotsaturic, ce gogaituric ikusico ez nas onetan?

FRUTUA.

Bacartu, ta ezcutatu gaur Elexen batera, edo echean Cristoren aurrerà ordù lauren bat, edo gueiago; eta an aratu, ta azertu ondò ceure concienciaren barrua; ta gomutatu, gogoz, viotzez, ta vorondatezco becatu barrucoak; eta beguira, ondò eguin badozuz lenagoco confesiñoac. *Espiritu Santuari, arguitu daizun adimentuà, Credo bat, ta zazpi Gloria Aiteari.*

HAMAZAZPI-GARREN EGUNÁ

Alde eguingo dira ònac
deunguen artetic.

II. Ezquerretara egongo dira gaisto oquer deungac; eta bearbada, nire erruz galdu, ta nigaz becatu eguin ebeenac.

III. Escoatarà, ala ezquerretarà egongò nas ni?

Mundù onetan alcar bat-zanduric, ta nastauric vici dira ònac deunguecaz: il ezquerò bere, toqui baten larpetuten dituez: baña Judicioco egunean ezta alan izangò; cerren urtengo dabè Angueruac, da ateraco dituez deungac Oneen artetic.

I. Escoatarà egongo dira Onac; età bearbada, aen artean icusicòdaz, nic orain botà, ta guichi-ecetan dauquedezan pobrechu humill asco.

FRUTUA.

Gaur ganic artu devociño vici erexegin bat Angueru guztiai, batezberè Anguerù Zain Gordetzalleari, eroan zaizan escoatarà icaragàrrizco egun atan, aterètan zaituala deungueen artetic. Alàn jazò dedin obeditù orainganic berari; enzun bere adibideac; bete beré esanac; ta jarraitù beré deiai.

Bederatzi bider Gloria Aiteari, bederatzi Coru Angueruen izenean.

HAMAZORTZI-GARREN EGUNÁ

Atzerengò Sentencià.

Alde eguinic Onac gaistoetaric, ezarrico dau Jesu Cristòc Sentencià.

I. Sentencià bat, iños aldatùco eztana.

II. Sentencia bat berealá beteco dana.

III. Sentencia bat, cein bein beticò ezarrico dan. Birao, ta madaricaciñoà, becatu eguiñic, iños damutu eztanari. Bedeincaciñoa eguiño becatu eguin ezebanari; ta eguin bèban becatu, negar ta damuz demporaz urtu ebanari.

FRUTUA.

Belaunico besoac zabàlic esan irù aldiz: *Neuré Jesu Cristo Jauna*; ta esatorduan, *damu dot*, echun auspez becoquiaz lurrean; eta eràzo iru gauza: lelengò, humildancia; bigarren, *damu vici bat*; irugarren, escaria Jesu Cristori, arren parcatu daizuzala ceurè becatu, ta erru guztiac.

HEMERETZI-GARREN EGUNÁ

Demporearen valio estimagarria.

Demporeà da valiò andico ondasun bat. Memento batec aimbat valio dau, ce bereàn irabaci lei becatari batec, becatuaz il eban arimeà, ta galdù daben Jangoicoà.

Gogoratu: I. Ceimbat on eguin neiquean egun onetan, da eztot eguiten.

II. Gaurco eguna igaroaz dóa, ta ezta iños biurtuco.

III. Gaurco egun, da ganeco egun, da ordu guztien contu ciur estua artuco jat; eta alamberé ain ardura guichiaz vici nas. ¡Ay nirè zori-gaistoa, deunguero emoten badodaz!

FRUTUA.

Asi orainganic, ondo emoten demporea: irabaztarren eguin, demporeac opa deusùn erá óna: bete instante, ordu, lan, ta eguiguera guztiac, gogo, ta guraria andiaz irabazteco Cerua.

Esateraco: Mezan, egon humiltasun, lotsà bildurrezco, ta fede vici bateaz; enzun, aldaizun, devociñoric andiena-gaz.

Errezatu bost amarreco Errosario bat Ama Virgiñaren ondran, escaturic mesedeac.

OGUEI-GARREN EGUNÁ

Infernuà.

Cer da Infernuá?

I. Da presondegui, ta toqui ilun itsal icaragarri bat, ceinetan dagoz madaricatuac estu esturic, cateaz loturic, memento bateco baque, ta atseguinic бага.

II. Da suzco eche bat, ceinec beti dirau erexeguinic, bañà ezta iños amatetan.

III. Da lecu bat, ceinetan igaroten diran, asmatu aleitezan necaldi, gogortade, atsecaba, garrazmin, ta penaric cubrelenac; eta eztira eguño arindu, ez guchituten.

FRUTUA.

Ucutù escuaz sua, edó ifinì atz bat candela erexeguin batén garrean, aldaizun dempora guztian, batezberè Ave Maria baten bitarteán; eta esan ceure artean: emeco suac pintatua leguez izanic, onelán erretan badau, cer eguingò dau infernuco su vici benetacoac. ¡O adú gaistocoà bere erruz an erretara datorrena!

Ama Virgñari bost Ave Maria.

OGUETA-BAT-GARREN EGUNÁ

Infernuco egotaldiá.

Cer eguiten da Infernuan?

I. Ezagututen da, ce gach arrigarrià dan becatua, orain ain guichi dazáuguna.

II. Quitutúten da becatuen ordeá, ta caltea, ceinec orain ain ardura guichi emoten deuscun.

III. Gorrotaù, ta madaricatutenda becatuen galbidea, ceinetaric orain urrindu gura eztogun. O adú gaistocoà an sartzen dan becataria! etá ce garratz, eta latz egingo jacan vizitza gozoá euqui ebanari!

FRUTUA.

Urtean bereala becatu-videtic: alde eguin galvideac; igues eguin lagun gaisto, joco, ta beste onelaco becatuan jausi-erasoten zaituen ocasiño deunguetatic. Escatu Jangoicoari, emen nequetu, aricatu gaisotu, erré, ta ebaguì zaizala, gueró Infernura botà ezaguizan. Erregutú Jaunari, ta Ama Virgiñari becatu mortalean datzazanac gaitic.

Esazu Maria Virgiñaren Letañia.

OGUETA-BI-GARREN EGUNÁ.

Iñoc eztaqui Salvatuco dánez.

I. Infernuan egon bear neban, becatu eguin badot; etá eztaquit eguiaz, Jangoicoac parcatu badeust.

II. Oraindiño jasi neindeque Infernuan, badá oraindiño jausi neinleque barriro becatuan eta benetan, eztaquit, jausicò banas, ifiniric pelligrú, ta gal-videan.

III. Arguirò dázauc, condenáuco nasana, onduten ezpanas, ta eztaquit eguiaz, obetuco nasanez eriotzeà baño len. Cer izango da nigaz, atzerengò orduan, Sacramentu Santuen ostean, emoten badeutsat lecuá pensamendu, gogo, edo atsedem gaisto bati? Noc segurutu leit, jausico ez nasala, lenagó ain sarri jausi nasan oiturà ta ecanduzco becatuan? Cer izangò da nigaz, au jasoten baiat? ¡Ah Beticò galdù nintzan!

FRUTUA.

Gogò sendò irme eguiazco bat artu Confesiño on bat eguiteco, becatu mortalean bazàgoz. Aleguin guztiaz quendu, ain sarri jausten zarean ecanduzco becatu ori, ceinec bearbadá galdù, gogortu, ta ordantuco zaituz beticò.

Joàn gaur Ama Virgiñaren altare-aurrera, ta esazuz iru Ave Maria bere Conceciño garbia gaitic.

OGUETA-IRU-GARREN EGUNÁ.

Condenétan dirànen neurria.

I. **E**rraz da condenètea, cerren zabalà da Infernuco bideà, ta asco dóaz bereanic. Alan diño Jesu Cristoc.

II. Gach da salvètea, cerren estu-bedarrà da Ceruco ateá, ta guichi sartzen dira an. Cristoc berac dirauscu au.

III. Munduaren asieraric onà guizonic gueienac condenatu dira; eta Santuac dirauscue, oraingoac bere gueienac condenaucò diriala; gueienac deunguero, vici dirialaco. Nic neugaitic cer esanei? ¡Ah jaquin ez!

FRUTUA.

Maian jan bagaric ichi ceurè gustuco jaqui, ta copauà.
Ez joan aracò pozcari, olgura, ta gozotasuna asmetan
dòzun lecura, òna izan arren.

*Errezatu Aita gurea ganic asi, ta buruz
daquizuzan oraciño batzuc.*

OGUETA-LAU-GARREN EGUNÁ.

Infernutar batec esàten oi dabena.

I. **J**angoicoac ascò, ta lar eguin eban ni salvetarren.
Ceimbat arimazco ondasun, ta gracia ni beregandùteco!
Ceimbat dei, ate-joca, barruquisquetac, eta argui, ni
irazartuteco! Ceimbat Sacramèntu, ta osagárri ni
onduteco, ta Cerura jasoteco! Beti èbillen, nondic
irabacico ninduan; bein laztan maitetasunaz; beste bein
cemai bildurrezcoaz. Berein aldiz jagotan deies; baña
bein-berè eranzun, ta jaramon ez neutsan!

II. Ni ondò erraz salvatu nindequean. ¡Ah Ebagui
baneu lelenguan araco becatuen sustraiá! ¡Ah indar apur
bat eguin baneu orduan onduteco! Irmé egon baninz artu
neban gogò onean! Damu, viotz-min, ta demporazco
Confesiño on batec aldatuco ninduan ondo erraz Ceru
eder gozora!

III. Neuc gura izan dot etorrì Infernu icaragarri
onetará. Neuré nai-guraz sartu nas emen. Bai: araguiusco
gozaro ciqain berealà igarò zan bategatic errecò nabè
labà gori onetan betiraun guztian. Bai: neuré naiaz,

gurariz, ta beguiac zabalic jausi nas suzco oxin gartu onetàn. Berein bider esaeustan Confesoreac cer jazoco jatan: berein àldiz adierazo eustan neurè concienciatic, ceren beguirà nengoan: sarritan ezagutù neban egui aú: ta ascotan barri charrau eracusi eustan Jangoicoaren Ontasunac.

FRUTUA:

I. **E**squer ónac emon Jangoicoari, sortù cindualaco Cristiñau fededùnen artean; arguitu zaitualaco Fedeco eguzquiaz; età botà etzaitualaco oraindiò Infernurà. Gogorá ecártuz, oraingiñò asmau dozùzan dei, argui, ta avisuac, aldatùteco vicitzeà; età jaramòn eztozu.

II. Erregutù viotz barrutic Jaunari, condenetaco zorian, ta urreán dagozana-caitic.

Esàzuz irù Credo, Jesu Cristo Crutzean egonzan iru ordua caitic.

OGUETA-BOST-GARREN EGUNÁ.

Beticò condenaciñoá.

Cer da condenétea?

I. Da Jangoicoá galdutea, ta galdutea beticò.

II. Da Infernucò Suán erretea, ta erretea beticò.

III. Dá amurratu, gogaitú, ta erneguètea, ta gogaitutea betí beticò. Oh, beti! O, iños! ¡O betiraun guztico eternidatea! Ce bildurgarrià zarean!

FRUTUA.

Asmatu celan gaur ecì, gòitù, ta nequetuco dozun ceuré gorputz gaistoà; esátez: bazagoz zutunic, ez iñorà alderatu: belaunico zaozànean, belaun baten egon: lecù ezcutuan zaozala, besoac zabaldù, caletic bazoaz, beguiac lurrerà adì; età beste onelaco necàldi asco asmatu leiz ixilian, ta aguirian.

*Gaur gabean eguin miñagaz bost crutze lurreàn
Virgìñà Mariaren Icenean.*

OGUETA-SEI-GARREN EGUNÁ.

Ez lucetu penitencià.

Becatu eguin dot: badà erabaguiric dago bitaric bat, edò Infernua, edo Penitencia. Biurtzen nas becatura, età sosegu epe andiaz nago, onduco nasalaco icharomenaz. Baña noc seguru leidaz iru gauza oneec?

I. Euquico dodala erèa, ta astiá penitencia eguiteco: baita bere, Jangoicoaren gracia eraguillea.

II. Euqui arren demporeà, euquico eté dodan ateracò gogoà, eta borondateà.

III. Eguin arrèn penitencià, jausico ez nasala barrirò becatuan, ta condenatu betico.

FRUTUA.

Beguiratú gaur iru bider ceurè escuái; ta esan bacochean: escu eder onec egunen baten usteldù, ta austucò dira: età oitù goxean goxean auxé esatera. Au zala bitarté, ondù eban A. Santo Domingoc Andrà becatari andi bat.

Bost bider Aita gureà, Ave Maria, gloria Aiteari, besòac zabalic.

OGUETA-ZAZPI-GARREN EGUNA.

Cerucò Gloriá.

Lelengò sartzaerán Ceruan cer asmauco dot?

I. Ondasunezco iturri ugariac, gacheen nasteà bagaric: gozotasun, olgura, pozcari bete osoac, atsecaba, ta neque bagaric. O ce pozà nireá orduan!

II. Zoriontasun benetaco oneec gozauçò dodaz Jesus, bere Ama laztan, Angueru, ta Cerutar doatsu guztien languntzan. O ce laguntzà gozò zorionecoa!

III. Gozo: ta zori-onoc euquico dodaz neurri betean; betiraun guztian; ñños galdù eceiteco bildur, ta ardurà бага. O zoriontasun oxin ondura, ta muga baguea!

FRUTUA.

Nagoanean nequeaz gogaituric; edo gozotasunaz epel otzituric, esango nas neuc neuri: *Ceruà, Ceruà, Gloria, Zorion beticoa*, esan oieban leguez San Felipe Neric, opa eutsenean andiqueria bat. Aditucot, ecer eztiriala munduco ondasunac Cerucoen alboan; eta San Ignacioc ciñoan leguez: *O ce uts, prestuez ta atsitua eguiten jatan lurra, Cerurà adinagoanean.*

Aità gureà, ta Credo bat belaunico Cerura adi.

OGUETA-ZORTZI-GARREN EGUNA.

Ceru-bidea

Bide bi baxen eztagoz eldúteco Cerurá: Inocencià, ta Penitencia: au da: Errubaguetasuná, eta Damuquioá.

I. Badirau nigan, Bateoan janci jatan inocencià, ta garbitasun ederrac? Ah! nire zori-gaiztoa! Berein bider galdu, ta ezaindú dot; ta galduerazo deutset beste ascori, bide emonic gacheraco, ta becaturacò.

II. Au eguin dot, ta beste becatu asco bere bai: bañà eguin dot eureen penitencià? Cer diñot penitencia! Enzuteac berac gogaituten nau. Beti ibilli nas iguesca beraganic: beti gorrotatu dot necaldiric, arinena beti ibilli nas neure pozcari, ta gurarien billa.

III. Au alàn izanic, dot salvetaco ustea? Bay. Baña, ¿ce bidetic? Inocencià galdù dot; penitencià gura eztot, celan badà salvatu nindeque? ¿O ichumendi eroà! ¡O ce galduric noian!

FRUTUA.

Jasò beguiac, ta viotzà Cerurantz; eta gogoratu, an dagoala ceurè Erri maiteà; eta an vicico zareala beticò jarraituric orain, esan dodazan bide bietaric bat.

Iru bidèr Neurè Jesu Cristo Jauna.

OGUETA-BEDERATZI GARREN EGUNA.

Ceru-Irabazteà.

I. Ondò guichi esquetan deust Jangoicoac, salvatu nadin: bacarric diraust, gorde daidala bere Legueá, Legue errazà, Legue ecin obea, Legue arina.

II. Onetaracò, laguntzen deust Jangoicoac berac bere beso altsuaz; beré **meritn**, dei, ta adibidea caz.

III. Lan-nequè guichi au orde-quitutuco deust, beti iraungò daben zoriontasunaz; oraingò nèque arinac, beticò gozotasunaz; oraingò bearrac, betico sariaz; età oraingò penac, betiraun guztico gloriáz.

FRUTUA.

Lurreco neque, bear, garrazmin, gaisotasuneetan gomutà zaite, Ceruco sari, atseguin, ta gloria miragarriaren, età esazu iru bider *Aità gurea, Ave Maria, ta Gloria Aitearí*, Trinitade Santearèn icenean, escatùric; arren josi daiela ceurè viotzean Ceruco gomuteà, ta gurari erexeguin bat.

OGUETA-AMAR-GARREN EGUNA.

Eternidade, edo Betiraunà.

I. **G**uizon guztiaç sartuco dira eternidade, edo betiraute guztico echeán: badà alan, ni bere sartuco nas? Bai. Celan norberac eguiten daben eche au vizitzà onetan, alan idoroco dau besteàn.

II. Deabruac bere asmo, ta labanqueriaz diraust, Infernuraco eguin daidela eche au; eta baiescoà emonic deutsat.

III. Jangoicoac diraust, penitencia, ta neque bearracaz equidatu daidala eche au Ceruraco, ta ezez dirautsat. O ce zoroa nasan! O ce itsuà nagoan!

FRUTUA.

Oeàn zatzàzala, zagoz idulqui, ta zul bat leguez, aldatu, ta itzuli бага gorputzà, ordú erdi guichienez; edò echunic buruà ol baten ganeàn; età nequè andià baderichazù esazu ceure artean: badà cer izangò da, beticò egotea Infernucò

suzco oe erexeguiñeàn? Auxé berau esan ciñei, aurquitzen zareanean pena, ta neque gogor garratzen baten.

Zazpi Ave Maria Ama Virgiñaren zazpi dolorea caitic; ta lurrà mun zazpi bider.

OGUETA-AMACA-GARREN EGUNA.

Concienciaren itaune-eranzuteac.

O neurè Conciencia! eranzun eguiezu itaune onei.

I. Certaraco sortu, ta efini ninduan Jangoicoac mundù onetan? Bacarric, bera orain servituric, guerò bera gozetaco.

II. Cer eguin deust onetaraco berè ontasunac? Emon deustaz arima, ta gorputzeco almen cenzun gracia, ta bitarteco andi ugariac.

III. Età nic cer eguin dot orainguiñò, salvetarren? Ah! Aleguin guztiac joateco Infernurà, azturic Ceruà, ta neurè Eguillè maitea.

FRUTUA.

I. **E**guin aurrengò illeco Confesiño guztirocoa: eta aitu, ceimbat aurretù edò atzeratu dozun vicioetan, edo virtuteetan.

II. Euquì damú andi bat deunguero eguiñena; eta artù gogò sendò bat, obetò emoteco urrengò illeà; ce menturaz berau izango da ceurè vicitzaco guerorengo. Opà, ta esquiñi Jangoicoari zarean guztiori, arimeà, gorputzà, almenac, berbac, eguiquerac, gogò, ta asmò guztiac; eta icasi buruz, esateco gox guztietan jaquitorduan, San Ignacioc esatèban urrengò oraciño au:

Artú eizuz, Jauná, nirè nai-gura guztiac: artu eguizuz nirè adimentu, gomutè, gogò, ta borondateco eguite guztiac. Ceuc emonac, Jauna, dìra dirianoc: Ceuri guztiac zor deusudaz; ta Ceuri biurtu gura deusudaz osoric, ta baperè neuretzat gorde baga; età nic daquidan baxen obeto, Ceuc zucendù, zaindù, ta arteztuco-dozuz Ceurè escu andiaz. Bacarric, Jauná, esquétan viotz otzitan Ceuré maitetasun, ta gracià: eurocàz bacarric dòdaz aberastàsun guztiac. Bai, ce, beneric gurá eztot, ta eztot bear berè.

~~~~~  
~~~~~